

Langues et cultures régionales de France 10 ans après – Législation, politiques, médias

2009ko abenduan Parisen Sorbonnean kolokio garrantzitsua antolatu zen: *Frantziako eskualdeetako hizkuntzak eta kulturak – 10 urte eta gero Legezko markoa, politikak, mediak*. Aktak 2011an L'Harmattan argitaletxean argitaratu dira frantsesez¹. Helburu orokorra zen hamar urte lehenago antolatu zen kolokioaren ondotik² Frantzian zer oztopoak, zer aldaketak, zer aurrerapenak izan ziren hizkuntza guttitu horiendako.

Lau gai aztertu zituzten gomitatutako adituek: Legezko eta konstituzio markoa, hizkuntza politika publikoa estatuaren edo eskualdeetako egitekoa zenez, eskualdeetako hizkuntzazko hedabideak eta, laugarrenik, elkarteen papera. Azken zati horretan Iparraldeko Euskal Konfederazioak parte hartu zuen bere lana eta euskararen egoera aukeztuz. Bi eguneko kolokio baten hitzaldiak laburtzea ezinezkoa da. Halere hona lau hizlariren gogoeta interesgarri batzuk.

Kolokioaren hasieran Xavier North, Frantsesa eta Frantziako hizkuntzetarako delegatu orokorra, frantses estatuaren izenean mintzatu da. Oroitarazi du, besteak beste, nola Konstituzio Kontseiluaren arabera hitzun multzoen eskubide kolektiboak onargaitzak diren, hiritarren berdintasunagatik. Hau da Kontseiluaren konstituzioko 1. artikulua irakurketa. Ondorioz, Frantziak Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna berretsi ezin zuen eta ezin du. North jaunaren arabera, halere, Frantziako hizkuntza-aniztasuna onartua da 2008ko Konstituzioko 75-1. artikulua berriari esker: *Eskualdeetako hizkuntzak* (Frantziako) *ondare dira*. Azkenean azpimarratu du nola, bere ustez, oraingo legezko eta arauzko markoa ez den osoki erabilia. Hau da laburbilduz oraingo gobernuaren jarrera.

Ondoko bi hizlariak Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunaren adituak dira.

Jean-Marie Woehrling alsaziarra Europako Gutun horren lehen bertsioaren idazleatarik bat da. Azpimarratu du nola Gutunak gutxiengoaren aldeko edo norbanakoen aldeko eskubiderik ez duen sortzen, baina bai hizkuntza horien aldeko lan egiteko eginbeharrak estatuarentzat eta autoritate publikoentzat. Gutunaren helburu orokorra da hizkuntzen babes zuzena, Europako hizkuntza-aniztasunaren babesa. Jean-Marie Woehrlingen arabera, beste Europako herrialdeetan Frantzian bezainbat Gutunari buruzko eztabaidarik ez dela izan. Baina Gutunaren edukia eta irispidea ezagutu gabe. Aditu horren arabera, Konstituzio Kontseiluak nazioarteko hitzarmen bat interpretatzeko eredu amankomunak ez ditu errespetatu. Gutunaren aitzinsolasa sartze bat baizik ez da eta erregela juridikorik ez du finkatzen. Beraz Gutunak eskubide berezirik ematen ez dizkie eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzen hitzun talde batzuei. Herrialde garatuetako konstituzio auzotegi denetan, berdintasun-printzipioa egoera berdinen tratamendu berdina bezala ulertzen dela eta egoera ezberdinena tratamendu ezberdina bezala ulertzen dela esaten digu. Gainera, eta besteak beste, Jean-Marie

¹ *Langues et cultures régionales de France 10 ans après – Législation, politiques, médias*, 2011, Christos Clairis, Denis Costaouec, Jean-Baptiste Coyos, Béatrice Jeannot-Fourcaud (argitaratzaileak), Paris, L'Harmattan argitaletxea.

² *Langues et cultures régionales de France – Etat des lieux, enseignement, politiques*, Christos Clairis, Denis Costaouec, Jean-Baptiste Coyos (argitaratzaileak), 2000, Paris, L'Harmattan argitaletxea.

Woehrlingek garbiki esaten du frantses konstituzioko bigarren artikulua, *Errepublikaren hizkuntza frantsesa d(ela)* esaten duenak, ez duela batere esaten eskualdeetako hizkuntzak eremu publikotik baztertu behar direla Konstituzio Kontseiluak interpretatu zuen bezala. Interpretazio hori botere konstituziogilearen borondatearen aurka doa. Hots, aditu horren ekarpena arretaz ikurtzeko da; nazioarteko eta europar testuiguruan argudio asko ematen dizkigu Frantziako oraingo jurisprudentzia kritikatzeko.

Philip Blair eiretarra Europako Kontseiluko tokiko et eskualdeko demokraziarako kooperazioaren zuzendari ohia da. Berretsi zuten herrialdeetan Europako Gutunaren aplikazioari jarraitzen zitzaien. Bere hitzaldian, *Ce qui manque sans la Charte européenne des langues régionales ou minoritaires* (« Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna gabe falta dena »), alderdi berezi bat aztertu zuen. Zer falta zaien Gutuna berretsi ez duten herrialdeei? Gainera, hitzaldian, Gutunaren ibilaldia haren indarrean sartzetik azaldu zuen. Laburbilduz hona Philip Blairen gogoeta batzuk. Gutunaren obran jartzea aski ezberdina izan da herrialdeen arabera. Europako Kontseiluko kontrola mekanismoak, Adituen Batzordearen txostenek herrialdeak laguntzen dituzte. Gutuna izenpetu ez duten herrialdeek holako suspergarriak eta bultzadak ez daukate. Frantziako kasuan, beraien hauskortasuna kontuan hartuz euskaldeen hizkuntza gehienek laguntza gehiago beharko luketela azpimarratzen du Philip Blaierak. Hau da Europar markoaren abantaila, jakinduria kolektiboa baliatuz estatuak beren politika eztabaidan jartzen onartzen dute europar hizkuntza eta kultura aniztasunaren onerako. Gutuna tresna serio, konkretu eta eraginkorra da Philip Blairen arabera, Frantzian ere baliagarri litzatekeena.

Aipatuko dugun azken aditua Guy Carcassonne zuzenbide erakaslea da. Guy Carcassonne ezaguna da 1998ko irailean lehen ministroari txosten bat prestatu baitzion, *Etude sur la compatibilité entre la Charte européenne des langues régionales ou minoritaires et la Constitution*. Horretan erakusten zuen Gutunaren eta frantses konstituzioaren artean bateraezintasunik ez zela. Halere, esan bezala, Errepublikaren lehendakariak eskaturik, Konstituzio Kontseiluak bere iritzia eman zuen eta 1999ko ekainaren 15ean erabaki zuen Gutunak Konstituzioaren aurkako klausulak bazituela. Geroztik, izenpetu izanik ere, Gutuna ez du berretsi Frantziak. Baina Guy Carcassonnen kolokioko hitzaldia Konstituzioko 75-1. artikulua berriari buruz zen. Eremu urriko hizkuntzak ez direla kontuan harturik ohartzen da. Artikuluak ez du Gutunaren berrespena errazten baina, behar bada, eskualdeetako hizkuntzen aldeko aukerak eskain litzake.

Zorigaitzez, Konstituzio Kontseiluak bere ondoko erabakietan, kolokioa 2009ko abenduarena zen, artikulua deklaratzailerik zela erakutsi du, eta ez besterik. Neholako eskubiderik aitortzen ez zuela argiki esan du. Era batez kolokio horrek erakutsi du Frantziako eskualdeetako hizkuntzen geroa hizkuntza-komunitateetan beraietan zegoela lehen-lehenik, haien borontadean eta konpromisoan, tokiko eta eskualde podere-publikoetako laguntzarekin.

Jean-Baptiste “Battittu” Coyos